

Kalaportutik Iurretara

Joseba Sarrionandia irakurriz

Mikel Asurmendi Agirre

Upaingo, 44

978-84-9172-287-8


2022. urtea - 128 or. - 13x19 cm

12,00 €

Habanako gaukariaren arrastoan ibili naiz iragan hiru urteotan, begiak sarri itzuliz, ezker-eskuin ari, haren ele, ale, pieza edota teselen ariora. Idazlearen itzuleraren aiduru, haren literaturaren paisaian barrena, haren *herbestearn* azkeneko pasaia igurikatuz.

Izan ere, ezaguna baita irakurzaleok bi paisaia behatzen ditugula: bizitzarena eta literaturarena. Askotan, baina, paisaia bakarra bailitzan bizituz; arian ari, bidean *sarri* geldituz, begiak *usu* itzuliz.

Joseba Sarrionandiaren literaturan ostertz berrietara eramaten gaituztenen artean menturatuz, azken idazlanetara mugatu naiz. *Habanako gaukariak* haintzat hartu ditut hain zuzen ere, gai anitzi buruzko gogoeta mamitsuak dakartzatelako eta, gainera, abantzu berrogei urteren ondoren ageriko maneran eta nondik idatzi dituen garbi utziz lehenak direlako.



Mikel Asurmendi
(Urretxu-Zumarraga,
1958)

Hendaiarra. Informazioaren Zientzietan Lizentziatua EHU. *Argiako* kazetaria izana 25 urtez. Politika eta literatura kazetaritzan aritua. EIEko Komatxo artean irrati-saioaren esataria (2000-2006. Herri Irratia, Gipuzkoa).

Liburuak: *Komatxo artean 1* –elkarrizketa literarioak 2000-2006– eta *Komatxo artean 2* –mahai-inguruak 2000-2006– liburuen egilea (*Utriusque Vasconiae*). Charles Chaplin *Charloten* biografia (Elkar).

Literatura kritikaria: <https://kritikak.armiarma.eus>

